

2023KO ABUZTUAREN 1EAN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia

Data: 2023-08-01

Ordua: Goizeko 10:00tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2023ko abuztuaren 1ean, goizeko 10:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ezohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

Zinegotziak:

- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Olaia Garaioa Moriones
- Pello Iriarte Irisarri

Ez da batzarreratu:

- Inor ez

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 10:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

LEHENGOA: ILARKI-K ESKAINTZEN DUEN ZERBITZUAREN TARIFA IGOTZEKO PROPOSAMENA.

BIGARRENA: ELDUAINGO HERRI BIDEEN ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO PROIEKTUAREN OBREN ADMINISTRAZIOKONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

LEHENENGO PUNTUA:
ILARKI-K ESKAINTZEN DUEN ZERBITZUAREN TARIFA IGOTZEKO PROPOSAMENA

Udal gobernuak Ilarki enkarateak 2023 urterako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio/ordua 20,29 euro/ordua igotzeko egindako proposamena aztertu da eta aldi berean oinarritzko gizarte zerbitzuen aldiko proposamena ere aztertu da.

URTEAK	ORDUA/PREZIOA
2018-2019- 2020-2021- 2022-2023	18,80€/ord

Eta besterik gabe gaiaren bozketa egiten da, honako emaitzarekin: alde bozkatu dute EH Bilduko 5 zinegotziek.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, Udalbatzarraren legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, ERABAKI DA:

BAKARRA: Etxeko laguntza-zerbitzuaren orduko prezioa 2023ko urtarrilaren 1tik aurrera 20,29 euro/orduko prezioan eguneratzea.

BIGARREN PUNTUA:
ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO LANAK, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udalbatzarrak, 2023ko ekainaren 22ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

LEHENA: Onartzea Elduaingo herri bideen asfaltoz zolaztatzeko lanen proiektua, Eneko Iturbe Rekondo Arkitektu Teknikoak burututako obra proiektuaren arabera proiektuaren lizitazio-aurrekontua guztira 65.822,93 euro (gehi BEZa) eta 79.645,75 euroko kopururaino igotzen da BEZa barne.

BIGARRENA: Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea

HIRUGARRENA: Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2023 urteko udalaren aurrekontutan adinakokreditua egozteko konpromisoa hartzea.

2023/08/15ean Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua dagoen Elduaingo Udaleko Kontratatzailearen Profilean iragarkia argitaratu ondoren, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, proposamen bakarra aurkeztu da:

ASFALTOS URRETXU S.A

Kontratazio mahaiak, 2023ko uztailaren 5ean eginiko bilkuran, aurkeztutako eskaintza onartu zuen.

Kontratazio mahaiak, 2023ko uztailaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO LANAK obra kontratua ASFALTOS URRETXU S.A-ri esleitzea.

ENPRESA	Oinarria	BEZa	GUZTIRA	EXEKUZIO EPEA (hilabeteak)	BERME EPEA
ASFALTOS URRETXU S.A	64.769,76	13.601,65	78.371,41	2 aste (14 egun)	5 urte

Kontutan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udaltzarrak dela.

Eta besterik gabe gaiaren bozketa egiten da, honako emaitzarekin: alde bozkatu dute EH Bilduko 5 zinegotziek.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, Udaltzarraren legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, ERABAKI DA:

LEHENA: ASFALTOS URRETXU S.A-ri ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO LANAK kontratua esleitzea 64.769,76 € nagusia eta 13.601,65 € BEZa kopuruan, eta 5 urteko bermearekin.

BIGARRENA: ASFALTOS URRETXU S.A-ri eskatzea kontratu hori administrazio dokumentuan formalizatzeko, bost (5) lanegunen epean, hura adjudikatu izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Kontratazioak hala eskatuz gero, eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratua, eta haren kontura izango dira kontratua egitearen ondoriozko gastuak.

HIRUGARRENA: Alkate andreaki baimena ematea kontratua sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesdunei, eta argitaratzea kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean.

BOSGARRENA: Kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da kontratua formalizatu izanaren dokumentua, kontratuarekin berarekin batera, gehienez hamabost eguneko epean, kontratua burutzen denetik hasita.

Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, goizeko 10.20 ordu zirenean.

Elduainen, 2023ko abuztuaren 1ean.

O.E.

Alkateak,

Udaleko idazkari-kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023KO ABUZTUAREN 1EKO EZHOIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.pdf

CSV/EKS:

SINAE40ee2db-30c1-464b-911e-383acc8ecd10